

# NESKA\* GAZTEOK EUSKAL ZAINZA SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIOANTZ!

## HAUSNARTZEN HASTEKO METODOLOGIA PROPOSAMENA

E  
H  
N  
H  
  
E  
H  
N  
G  
  
E  
H  
N  
G

### 1. ARIKETA: NOLA ULERTZEN DUGU ZAINZA ETA EUSKAL ZAINZA SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIOA?

“Zaintza bizimodu duina edukitzeko oinarria da” Zergatik diogu hau?

“Zaintzaren ulerkera eta eredia aldatzeak gizarte osoaren eraldaketa dakar” Zein potentzialitate du zaintzak sistemaren eta jendartearen eraldaketarako? gure etxe, harreman, kale eta herrietako egunez egunekoa nola aldatuko litzateke zaintza erdigunean jartzen baldin badugu?

“Ez zaintzea pribilegio bat da. Pribilegio tokietan (gizon izatea, instituzioak, elite ekonomikoak) zaintzaren erantzukizunari muzin egiten zaio sistematikoki” Zein erantzukizunei muzin egiten diote hauetako bakoitzak?

“Bizitza zaintzeko modu bakarra elkarrekin, modu komunitarioan egitea da. Eskubidea eta erantzukizuna denona da. Zaintza lanek familiarizatuak, feminizatuak eta arrazializatuak egoteari utzi behar diote.” Zein ardura hartu behar ditugu modu komunitarioan? Erantzukizunak hartzea zer esan nahi du?

“Administrazio publikoak dagokion erantzukizuna hartu behar du bere gain: zaintza- lnen parte bat egin eta zaintza baldintza duin eta bidezkoetan eskaini ahal izateko baliabideak jarri behar ditu.” Zaintza gizartearen eta sistemaren erdigunean jartzeko administrazio publikoak zein ardura hartu beharko lituzke?

“Zaintzarako eskubide kolektiboa posible egingo duen euskal sistema publiko-komunitarioaren aldeko apustu irmoa egiten dugu.” Nola irudikatzen dugu zaintza sistema publiko komunitarioa?



## 2. ARIKETA: ZEIN DA GAUR EGUN DAUKAGU EGOERA ETA NOLA EGINGO DUGU TRANTSIZIO HAU?

	GAUR EGUNGO ZAINZA SISTEMA	EUSKAL ZAINZA SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIOA
<b>INSTITUZIOA</b>	Zein hutsune identifikatzen ditugu?	Zein funtzio bete behar ditu?
<b>GIZONAK</b>	Zein da beraien papela zaintzari dagionean?	Zein izan beharko litzateke beraien papela zaintzari dagokionean?
<b>ELITE EKONOMIKOAK / KAPITALA</b>	Zein da beraien jarrera zaintzarekiko? Zelan eragiten dute zaintzaren auzian?	Zer papel dute zaintza erdigunean jartzeko?
<b>KOMUNITATEA</b>	Gaur egun zein funtzio ez ditu betetzen? Komunitatea nola ahultzen edo desgastatzen du zaintzaren auziak?	Zein funtzio bete beharko luke komunitateak? Eta nolako komunitate bat behar dugu zaintza erdigunean jartzeko?
<b>NESKA* GAZTEOK</b>	Gaur egun zer suposatzen digu guzti honek?	Zaintza sistema publiko komunitario bat edukitzeak zein eskubide eta betehar suposatu beharko liguke?

W  
I  
N  
I  
  
W  
I  
N  
G  
  
W  
I  
N  
G

